

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAINA 2019

MISIOAK ALDATU EGITEN ZAITU



ELIZBARRUTIKO MISIOEN ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, 4 – 2ª Planta – 48005 BILBAO

Teléfono: 94 401.36.99

e-mail: misiobi@bizkeliza.org

www.misioak.org

“MISINOAK ALDATU EGITEN ZAITU”

2019.eko martxoak 17

Agur bat,

Misinoetarako Ordezkaritzatik datorren martxoan martxan jarriko dogun Eleizbarrutietako Misinoen aurtengo kanpaina aurkeztu gura deutsuegu. Frantzisko aita santuak egindako deialdiaren haritik jo gura dogu, hau da, misiolari alderdia Eleizaren bizitzaren erdian jartea da helburua. Horretarako, gainera, Aita Santuak Ezohiko Misiolari Hilebetea izendatu dau 2019ko urria, “missio ad gentes” dalakoaren misiolari-sena gehiago suspertzeko eta bizitzaren eta pastoraltzaren misiolari eraldaketari bultzada barria emoteko. Talde sustatzaileagaz batera, hainbat jarduera prestatzen dihardugu hitzordu horretarako Aita Santuaren deiari erantzun eta datorren urri hori Eleiza osoaren misiolari konpromisoa barritzeko aukeratzat hartuz. Honen haritik, nire ustez garrantzitsua da gure gotzainen hitzak gogoratzea, misiolari hilebete honeetarako dei eta gurari dira-eta:

“Bereziki misiolari den urte honen eraginez susper dadila gure Elizetan misioarekiko grina. Senti dezala bakoitzak misioa bizi izateko era ezagutzeko dei hori. Misioak Elizaren aurpegia berritu egiten du eta geu ere barrutik berritzen gaitu. Espiritu Santuak bere maitasunaz busti gaitzala Jesus Jaunak gure esku utzi duen egiteko zoragarri honi lot gakizkion.”

Beste urte batez, Eleizbarrutietako Misinoen kanpaina martxan da, “misinoak aldatu egiten zaitu” goiburuaren haritik. Jesusen deiak dinamizatu egiten gaitu; erantzuten badogu, axolagabe izten ez bagaitu, mobimentuan jarten gaitu. Gizon eta emakume misiolariak egin gura doguz egunotako protagonista eta, eurrakaz batera, Ebanjelioaganako konpromisoa egunez egun barrituz arazo, erronka, aberastasun eta pobretasunei aurre egiten saiatzen diran persona guztiak.

Eta kartela, aurton be, kolorez eta esanguraz beteta dago; gure ustez, alaia da eta, azken batean, dei bat, mundua biziz eta kolorez beteteko. Senidetasuna egiten jarraitu gura dogu eta Eliza misiolari lez, bidelagun doguzan alkarteetako gizarte, eleiz eta politika egoera ezagutzera emon. Horretarako, gure artean izango dira Kenyan, Kaikor basamortuan jarduten daben Matilde Rivera eta Consuelo Pillajo monja marianitar ekuadortarrak. Euren lekukotasun eta hausnarketa aberasgarriak eskainiko deuskuez.

Honako honegaz batera kanpainarako hainbat lagungarri jasoko dozue: gure eleizbarrutietako gotzainen mezua; Eleizbarrutiko Misinoen egunerako liturgia lagungarriak; ‘power point’ bat ospakizun eta taldeetarako eta kartelak (Ordezkaritzan gehiago eskatu daikezue). Kanpainaren inguruan gehiago jakiteko: www.misioak.org.

Eskerrik asko, alde zuzenetik zuon laguntza eta eskuzabaltasunagaitik.

Felicitas Martin Fernandez

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkarria

MISIOAK ALDATU EGITEN ZAITU

Elizbarrutietako Misioen 2019ko gutuna

Anai-arreba maiteok.

1. 2019. urte honek misiolari sen berezia izango du, Frantzisko Aita Santuak ezohiko misiolari hilabetea deitu baitu urrirako, Benedikto XV.a Aita Santuak fede katolikoaren zabalkundea munduan gaiari buruz idatzi zuen "Maximum illud" gutun apostolikoaren mendeurrena dela-eta. Halaber, Euskal Elizbarrutietako Misioen sorreraren eragiletzat jotzen den On Angel Sagarminagaren hitzaldiaren mendeurrena ere ospatzen da.

2. "Alda ezazu Mundua – Cambia el mundo" 2018ko Domund eguneko goiburuaren haritik, Elizbarrutietako Misioen aurtengo egunak misioan parte hartzeak norbere bizitzan duen zirrara azpimarratu nahi du. Jesukristorekin bat egiteak bizitza aldatu egiten du. Frantzisko Aita Santuak zioen "Evangelii Gaudium" aholku-hitzaren lehen puntuan: "Ebanjelioaren poza bihotzaren eta bizi osoaren betegarri da Jesusekin topo egiten dutenentzat. Haren salbamena onartzen dutenak askatuak dira bekatutik, tristuratik, barne-hutsetik eta isolamendutik. Jesu Kristorekin beti sortzen eta birsortzen da poza". Etengabe durundi egiten du, halaber, Benedikto XVI.ak "Deus caritas est" Entziklikaren lehen paragrafoan dioenak: "Ez gara kristau erabaki etiko edo ideia handi baten eraginez, bizitzari zerumuga berria eta, honekin batera, norabide erabakigarria ematen dion gertaerarekin, Pertsonarekin bat eginik baizik".

3. Hain zuzen ere, Kristorekiko bategite pertsonalak aldaketa sakona dakar bizitzara. Bategite hori, era askotara gauza daiteke: Bere Hitza entzunez; Eukaristiaren ospakizunean; fedea lantzeko taldeetan; gaixoen eta behartsuen aldeko zerbitzuan; esperientzia pozgarrietan edota mingarrietan; familian; parrokian; eskolan, laguntaldean eta misioan. Udaldietan edo denboraldi luzeagotan misiolari esperientziak bizi izan dituen hainbeste lagunek kontatzen duenez, esperientzia horrek bizitza aldatu egin die eta bizipen horretan Jesus aurkitu dute bizirik eta aurrez aurre. Bakoitzak bere esperientzia pertsonala gogoratuko du. Jesusek berak dioskunez: "Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu" (Jn 15, 16). Bera atera da bidera gure bila eta ikasle misiolari bezala bere atzetik jarraitzeko dei egin digu.

4. Badakigu, fedea ematen denean sendotzen dena. Ez gara lehenik ikasle, gero misiolari izateko. Bataioa hartu genuenean, Jaunaren Espiritua gure bihotzean geratu zan. Eta Espiritu horrek guregan ezagutzeko eta maitatzeko era berria sortzeaz gainera, munduko mugaldeen Jesus Jaunaren lekukotasuna ematera bultzatzen gaitu. Isaiasekin eta, gero eta bereziki, Jesusekin batera, geuk ere esan dezakegu: "Jaunaren espirtua nire gainean dago, berak bainau sagaratu behartsuei berri ona adierazteko; berak nau bidali gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera eta zapalduak askatzera, Jaunak onginahia azalduko duen urtea hots egitera" (Lk 4, 18-19).

5. Frantzisko Aita Santuak dei egiten digu bizitza misiotzat har dezagun. Misiolari bide honetan, Jainkoak sakon eraldatu gaitu eta bere itxurara eratu. "Zeuk ere bizitza osoa

misiotzat hartu behar duzu. Saia zaitez otoitzean Jainkoa entzunez eta ematen dizkizun zeinuak aitortuz. Galde iezaiozu beti Espirituari zer itxaroten duen Jesusek zuregandik zure bizitzako une guztietan eta hartu behar duzun erabaki bakoitzean, horrek zeure misioan duen lekua bereizteko. Eta utz iezaiozu gaurko munduan Jesukristo agertzera emango duen misterio pertsonal hori zeuregan sortzen" (GE, 23).

6. Bizitzako gertaeretan Jaunaren agerpena aitortzen ikasi behar dugu eta une bakoitzean zer eskatzen digun galdetu. Kristau bizitza, azken batean, norbere baitatik atera eta bestearen bila ateratzea da berau maitatzeko eta zerbitzatzeko. Hortik poztasun handia sortzen da. Jakin badakigu, geure buruarengan baizik pentsatzen ez dugunean, goibeltasuna hedatzen dena gure bizitzan. Ostera, besteen zerbitzura ateratzen garenean, bizia hedatu egiten da eta argitsu bihurtu. Horregatik, misioak goitik behera aldatzen gaitu.

7. Elizbarrutiko Misioen eguna San Jose egunez ospatzen da eta honengandik ikasi gura dugu. Gorputz eta arima eman zituen Jainkoak agindutako misioaren alde. Hasieran Jainkoak zer eskatzen zion ulertu ez bazuen ere, erabateko konfiantza jarri zuen haren Hitzean. Maria Birjina eta San Jose eredugarri ditugu, izan ere, beren bizitzan Jainkoaren borondatea onartu eta, denborarik galdu gabe, beren bizitza osoa misio bihurtu zutelako. Bereziki misiolari den urte honen eraginez susper dadila gure Elizetan misioarekiko grina. Senti dezala bakoitzak misioa bizi izateko era ezagutzeko dei hori. Misioak Elizaren aurpegia berritu egiten du eta geu ere barrutik berritzen gaitu. Espiritu Santuak bere maitasunaz busti gaitzala Jesus Jaunak gure esku utzi duen egiteko zoragarri honi lot gakizkion.

Bihotzez.

+ Mario Izeta Gabikagoxeaskoa, Bilboko gotzaina

+ Jose Ignacio Munilla Agirre, Donostiako gotzaina

+ Juan Carlos Elizalde Espinal, Gasteizko gotzaina

GARIZUMA ALDIKO 2. IGANDEA – C
ELIZBARRUTIKO MISIOEN EGUNA
MISIOAK ALDATU EGITEN ZAITU

Sarrerako oharra

Ongi etorriak izan zaitezte! ospakizunera!

Misioak aldatu egiten zaitu. La misión te cambia. Behartsuek bizitza aldatu egiten dizute.

Haxe da Euskal Elizbarrutietako Misioetan misiolari bezala jardun izan duen Euskal Herriko makina bat laguneren esperientzia.

Misiolari egitekoak handitu eta zentzuz betetzen du gure Eliza. Pazkoranzko bidean bidelagun dugun Jesus Jaunak adore ematen digula sinetsita ekingo diogu ospakizunari.

Eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizetan 1948an hasi zen misiolari abenturagatik. Urte horietan, asko izan dira laiko, erlijioso eta apaiz misiolariak, eta misioak arrasto sakona utzi du beren bizitzetan.

Ospakizun honetan, laguntza eskatuko diogu Jaunari, Garizuma aldiko ibilbidean aurrera egin dezagun, bihotz-berrituz eta Eliza eta kristau bezala ditugun erronkei erantzutea galarazten diguten gauzan aldatuz. Frantzisko aita santuak dioenez, misio egoeran bizi gaitezela etengabe.

Esker on eta itxaropenez, Jainkoaren aurrean aurkeztuko gar denok batera.

Apaizaren agurra

Jesukristo Biziaren Jaunaren grazia eta bakea, zuekin.

Damu otoitza

- Jainkoa bakarrik uzteagatik gizarte susen eta anaikorra eratzeko egitasmoan. *Erruki, Jauna.*
- Behartsuen, errefuxiatuen eta maitasunik ezaren biktimen oinaze eta bakardadearen aurrean erakusten dugun gogogabetasun eta axolagabekeriagatik. *Kristo, erruki.*
- Gure jarrera egoistak zurrizteko eta biktimei jasaten duten bazterketa bidegabearen errua aurpegiratzeko grinagatik. *Erruki, Jauna.*

A. Aita Jainkoa, zure seme-alaben bidegabekeriagatik sufritzen duzuna; emaguzu zure barkamena, jakituria eta errukia gure gogogabetasuna zuzentzeko, konpromisorako beldurrak gainditzeko eta anai-arrebei harrera egiteko. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Oharra irakurgaiei

Garizuma aldiko bigarren igande honetan entzungo ditugun irakurgaietan, Jainkoak gizon eta emakume guztien bihotzetan jartzen duen ametsa, hau da, mundua familia bihurtzeko ametsa, aintzat hartzeko esaten zaigu.

Abrahamek Jainkoaren agintzaritzat hartu zuen familia handia izateko ametsa eta bere lurretik aterata, bideari ekin zion. Paulok bestelako jokaera izateko diosku, zeruko hiritar bezala biziz, han senidetasun unibertsalaren ametsa erabat gauzatzen baita.

Ebanjelioan, Jesusen, behartsuen artean Behartsuaren egundoko gizatasunean gordetzen den nortasun sakona agertzeraz ematen digu. Entzun dezagun.

Homiliarako oharra

(Lehen edo orain lekukotasunen bat aurkezten bada, horixe izan daiteke homiliaren abiapuntua, jardunaldiko gai sakonduz).

Nork ez du noizbait senidetasun unibertsala amestu? Denok daramagu amets hori geure barruan, batzuk biziago, beste batzuk ez hainbeste, baina denok irrikatzen dugu lur zuzen eta anaikorra. Abrahamek bezala, etorkinek bezala, gaurko gosearen eta gerren errefuxiatuek bezala, bere ondorengoekin duintasunez bizitzeko lurraren bila bere etxea utzi zuen gutar askok bezala. Geure giza nortasunaren barru-barruan sartutako Jainkoaren ametsak mugitzen gaitu eta mugituko gaitu, atera eta delako amets hori gauzatzeko lurra bilatzeko.

Eta amets horrek bidean Jesus berpiztuarekin nahita topo egiteraino mugitzen zaituenean, eta erruz argi egiten dizun argi hori ezkutatu ezin duzunean, Bizia ematen duen agerpen hori isildu ezin duzunean, aldatu egiten zaitu, bere berri ona hots egitera bultzatu: Jainkoa gizadiaren Aita dela, seme-alaben negarra entzun egiten duela eta bere Semea ematen digula gu mundu honetako faraoiek ezartzen diguten esklabotasunetik askatzeko.

Jesusen Espirituak basamortura garamatza Jainko Aita honen berri ona behartsuei hots egitera, beraiekin bat eginik beren askatasunerako bidean. Entzun dugun ebanjelioaren esanetan, Bera da Aitak ematen digun Hitza aurrera egin dezagun senidetasun unibertsalerantz. Entzun iezaiozue, Berataz fidatu, Bera da bide segurua.

Misioak aldatu egiten zaitu

Geure mundua besterik ezagutzen ez genuela, lur honetatik elizbarrutietako misioetara atera ginenoi lehenik eta behin aldatu zitzaiguna mundua ikusteko eta sentitzeko era izan zen. Misioak bihotza ireki zigun pozez hartu gintuzten beste kultura batzuetako gizon eta emakumeak anai eta arreba bezala sentitzeko. Misioak barru-barrutik sentiarazi zigun batzuk oso aberats eta beste batzuk oso behartsu bihurtzen dituzten bidegabeko aldeek eragiten duten atsekabea; batzuen pobretasuna eta besteen aberastasuna loturik daudela. Eta Eliza bezala geure gain genuen misioa, behartsuen beren askapenerako bidean lagun eginez, beraiek Jainkoarengandik jasotzen zuten berri ona zela.

Eliza bezala ere aldatu gintuen. Misio ebanjelizatzailea behartsuen bizitzan lagunduz, Jesusen estiloa geure eginez bizitzen saiatzen gara, Jainkoaren seme eta alaben familia, familia jendetsu eta batua eraikitzen saiatuz munduan.

Jainkoak argitasun osoz eman zigun agertzeraz bere aurpegia behartsuen artean misioa garatzean. 'Diosito' da, Jainko askatzailea, menderaezina eta, Frantzisko aita santuak dioenez, arriskutsua, *gizakia osotasuna eta edozein esklabotasunetik askatzea dagokiola*

baieztatzeagatik (EG 58). Duintasunean aske eta berdin nahi gaituen Jainkoa da. Bere Seme Jesus behartsuekin askapen-bidea egitera eta, horrela, hauentzat eta munduarentzat Berri On izatera bidaltzen duen Jainkoa. Misioan, Jesus berpiztua bila ateratzen zaigu jende xume eta apalen, bere Hitza erdi-erdian jartzen duen jendearen, beren etxean, behartsuen Eliza eginez sentitzen den jendearen elkarte apaletan.

Horrela, hemengo eta mundu guztiko behartsuen ondoan bizi den misioak benetan aldatzen gaitu, pertsona eta Eliza bezala bihotz-berritzeko eta aldatzeko prozesuan sartzen gaitu.

Kristau eta elkar-teok ere ezinbestekoa dugu Jainkoak bere seme Jesusen indar gizatiartzailea agertzera ematea. Merezi du Hari entzutea, Harengan arreta jartzea, behartsuen ondoan bidea eginez Haren atzetik jarraitzea. Horixe da askatasunera eramango gaituen biderik zuzenena.

Misioak aldatu egiten gaitu pertsona eta Eliza bezala Amerikan, Afrikan eta baita hemen ere, Jesusen atzetik jarraitzen dugunean. Misio honetan, behartsuekin batera, Berpiztua ikusi ahal izango dugu, bere aurpegia ikusi ahal izango dugu, Tabor mendian bezala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Anai-arrebok, egin dezagun otoitz, Jaunari errukia eta gure erreguak aintzat hartzea eskatuz:

- Elizaren alde; onar dezagula Jesusen aldaketa, misio-sena etengabe garatuz behartsuen ondoan. Egin dezagun otoitz.
- Politiko eta agintarien alde; etorkinen aurkako politikak bertan behera utzi eta gizon eta emakume guztien eskubideak eta duintasuna defenda ditzaten. Egin dezagun otoitz.
- Gure misiolarien osasun eta sendotasun espiritualaren alde; bihotzez laguntzen diegula senti dezaten. Egin dezagun otoitz.
- Gure kristau elkar-teetatik hartu-eman dugun munduko elkarte eta herrien alde; harreman hori elkarrengandik ikasteko bide izan dadin. Egin dezagun otoitz.
- Eukaristia hau baliagarri izan dakigun Jesus ispilutzat hartuta eraldatzeko, Jesusen atzetik jarraitzeko eta deitzen gaituen misioa pozez onartzeko. Egin dezagun otoitz.
- Gure elizbarrutien alde; Eliza misiolari izan gaitezen beti, behartsuenera bidelagun izanik. Egin dezagun otoitz.

Kristorengan mundu osoa eraberritu nahi duzun Jainko ona; begiratu gure eskastasuna, eta zure Semea mundua kondenatzeko ez ezik salbatzeko bidali zenuenez, entzun gure otoitzak, barkatu gure hutsegiteak eta piztu gure bihotzetan bizi berriaren poztasuna. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Oharra dirua bildu aurretik

Gaur bil dadin dirua Elizbarrutietako Misioentzat da. Gure ekarpena, misiolarien garatzen diharduten egitasmoetan erabiliko da batez ere. Eskerrik asko eskuzabalak izateagatik.

Apaizaren agurra (bedeinkapenaren ostean)

Jainko ahalguztiduna, Kristoren taldekotzat har gaitzazu beti, haren Gorputz eta Odola hartu berri ditugunez. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

“MISINOAK ALDATU EGITEN ZAITU”

“Aldatu eizu mundua – Cambia el mundo” 2018ko Domund eguneko goiburuari jarraipena emoteko asmoagaz aukeratu dogu honako goiburu hau. Izan be, Ekuadorreko, Angolako... txirotuengan Jesusegaz bat egiteak bizitzan gauzak aldatzera garoazalako. Misiolari esperientziak arrasto sakona itzi daualako gure bizitzetan. **Misiolari lekukotasunari** indarra emon gura deutsagulako, **gazteen** misiolari esperientziak agertzera emon. Era berean, **2019ko urrian** ospatuko dogun **Ezohiko Misiolari Hilebetearen** (*Maximun Illud* gutun apostolikoaren mendeurrena, Euskal Eleizbarrutietako Misinoen aitzindari izan zan Angel Sagarminagaren berbaldiaren mendeurrena eta gure misinoek 2018an ospatu daben 70. urteurrena) prestakeagaz be lotuta dagoala uste dogu.

Aita Santuak Ezohiko Misiolari Hilabetea deitu dau 2019ko urrirako, *Maximun Illud* gutun apostolikoaren mendeurrena ospatzen dalako. Aita Santuak, zera gogoratzen deusku urteurren horren harira: *“misiolari urteera da Eleizaren egintza ororen paradigma”*.

2019ko urrian, gainera, On Angel Sagarminagak kursoaren hasieran Gasteizko Seminarioan eskaini eban berbaldiaren mendeurrena be gogoratuko da. Dalako berbaldi hori handik urte batzuetara Euskal Eleizbarrutietako Misinoak sortzea ekarri eban sen misiolariaren eragiletzat jotzen da.

Hirurogeta hamar urte bete dira, Eleizbarrutietako Misinoetako lehenengo 8 misiolariak Ekuadorrera joan ziranetik.

Eleizbarrutietako Misinoen aurtengo kanpaina ospakizunak prestatzeko eta zentzunez beteteko lagungarri izatea gurako geunke, eleizbarruti misiolariak garala gogorarazoteaz batera.

Misinoetan dagozan gizon eta emakumeei gure babes eta laguntza eskaintzen jarraitu gura dogu, eurengana hurreratuz, euren esperientzien eta bizitzen barri jasoz, eurek garatzen dabezan egitasmoak babestuz eta bultzatuz, senidetzeak eginez...

Eta heldu zein gazteak prestatzen dihardugu, misinoen errealitate hori ezagutu eta handik datorren deia entzun daien, lekurik ahaztuenean behartsuenen artean behartsuenengan Jesusegaz bat egin daikegula jabetuz.

Hainbat leku, sasoi eta eratara, “MISINOAK ALDATU EGITEN ZAIGU – LA MISIÓN TE CAMBIA” dalako hori bizi izan daben personen esperientzia izango da kanpaina honen abiapuntua. Norbere eremutik urteteak, gehien sufritzen dabenengana hurreratzeak, denpora, fedea, norbere burua eskaintzeak, anai eta arreba horreei arpegia jarreak... behartsuen alde egitekak... aldatu egiten gaituala, daukagun guztiaz (aukerak, ezagutza, baliabideak...) jabetzen laguntzen deuskula entzun, geure egin eta gure eguneroko bizitzan konpromisoak hartu eta gatz eta argi izan.

Ondoren aurkezten deusuegun hainbat jarduera prestatu dogu. Parte hartu eizue eta animatu eizuez beste batzuk be. Zain gaukazuez!

TOPAKETA 'HEGOALDEKO AHOTSAKAZ'

<u>Eguna</u>	<u>Ordua</u>	<u>Lekua</u>	<u>Jarduera</u>
Martxoak 11, astelehena	19,30h.	Elorrioko Sortzez Garbia parrokia	Topaketa 'Hegoaldeko ahotsakaz
Martxoak 12, martitzena	19,00h.	Ermuako Santiago Apostolua parrokia	Topaketa 'Hegoaldeko ahotsakaz'
Martxoak 13, eguztena	19,30h.	Gernikako Andra Mari parrokiako aretoa	Topaketa 'Hegoaldeko ahotsakaz'
Martxoak 14, eguna	19,30h.	Zornotzako Andra Mari parrokia	Topaketa 'Hegoaldeko ahotsakaz'
Martxoak 15, barikua	17,00h. 19,00h.	Berrizeko San Juan Ebangelista parrokia Zaldibareko San Andres Apostolua parrokia	Topaketa 'Hegoaldeko ahotsakaz
Martxoak 17, domeka.	12,00h.	Ibarrekolandako Komunitate Kristaua	Topaketa 'Hegoaldeko ahotsakaz